

“Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak”



Behin betiko txostena I. fasea (2012. urtea)

Ikertzaile taldea

Luis Lizasoain Hernández (Ikertzaile Nagusia, UPV-EHU)

Araceli Angulo Vargas (ISEI-IVEI)

Beronika Azpillaga Larrea (UPV-EHU)

M^a Dolores Damborenea Isusi (ISEI-IVEI)

Rakel Del-Frago Arbizu (UPV-EHU)

Felipa Etxeberria Sagastume (UPV-EHU)

Nahia Intxausti Intxausti (UPV-EHU)

Luis Joaristi Olariaga (UPV-EHU)

Yolanda Méndez Usillos (ISEI-IVEI)

Carmen Núñez Fernández (ISEI-IVEI)

Concepción Valadez Monreal (UCLA)

Eskerrak: txosten honetan deskribatzen den prozesu konplexua ezinezkoa izango zen, parte hartu duten agente guztiak hain gogotsu eta hain jarrera bikainaz aritu ez balira: ikuskariak, Berritzeguneetako aholkulariak, hautatutako ikastetxeen zuzendaritza taldeak, Ikuskaritza Nagusia eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza. Guztiei geure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu.

2013ko urtarrilaren 31

Aurkibidea

Ikerketa	5
1. Proiektua	7
2. Ikertzaile taldea	7
3. Laguntza-taldea	7
4. Proiektuaren faseak eta etapak	7
5. Helburu orokorra	7
5.1. Helburu espezifikoak	7
6. Erabilitako metodologiak	8
7. Oinarrizko kontzeptuak	8
Ikerketaren proiektuaren lehen fasea	9
• Lehen etapa (2011ko iraila-abendua)	12
▪ Analisi kuantitatiboaren zereginak	12
1. Datuen analisi estatistikoa	12
2. Ikastetxeen hautaketa	12
3. Hautatutako ikastetxeen ezaugarriak	13
▪ Analisi kualitatiboaren zereginak	14
1. Fase kualitatiboaren prestaketa	14
2. Hartutako erabakiak	14
• Bigarren etapa (2012ko urtarrila-ekaina)	15
▪ Analisi kualitatiboaren zereginak	15
1. Elkarrizketak egiteko protokoloa	15
2. Elkarrizketak egitea	15
3. Erabakiak hartzea	16
• Hirugarren etapa (2012ko iraila-abendua)	18
1. Hautazko transkribapenak	18
2. Kategorien hasierako eskemaren berrazterketa	18
3. Azpikategorien eskemaren elaborazioa	18
4. Informazioaren azken analisia	18
5. Egindako lanaren azken berrikusketa	19
6. Txostenak idaztea	19
Emaitzak eta ondorioak	21
• Emaitzak: kategoria bakoitzean antzemandako jardunbide egokiak	23
• Ondorioak	29
• Jardunbide egokien zerrenda	30

Ikerketa

Ikerketa



1. Proiektua

“Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak” proiektua I+G+b Plan Nazionalaren Ikerkuntzarako eta Kudeaketarako Zuzendaritza orokorrak finantzatu du, Oinarrizko Ikerketa Proiektuetarako Programa Nazionalaren barruan eta Ikerketa zientifikorako eta Teknologiaren Garapenerako eta berrikuntzarako 2008-2011 VI. Plan Nazionalaren esparruan. Bere erreferentzia-kodea EDU2011-24366 da.

2. Ikertzaile taldea

- UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saileko (HIDM) eta Didaktika eta Eskola Antolakuntzaren Saileko (DEA) kideak.
- Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundeko (ISEI-IVEI) kideak.
- Kaliforniako Los Angeleseko Unibertsitateko (UCLA) *Graduate School of Education* saileko kideak.

3. Laguntza-taldea

- Hezkuntzako ikuskaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza eta Berritzeguneak.

4. Proiektuaren faseak eta etapak

Onetsitako I+G+b proiektua gauzatzeko epea 2012ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arteko hiru urtekoa da.



5. Helburu orokorra

Ebaluazio Diagnostikoko probek neurtu nahi duten konpetentzien lorpen eta ikaskuntza multzoari eskolak benetan egiten dion ekarpena ezagutzea, eta Euskadiko hezkuntza-sistema hobetzen laguntzeko beste ikastetxe batzuetara transferitu daitekeen jardunbide egokien katalogoa egitea.

5.1. Helburu espezifikoak

- Ikastetxearen eraginez eta jardueraz emaitzarik onenak lortu dituzten ikastetxeak identifikatzea maila anitzeko modelizazio teknika estatistikoaren bidez.
- Hautatutako ikastetxeen ezaugarriak zehaztea.
- Jardunbide egokien katalogo bat egitea.

Ikerketa



6. Erabilitako metodologiak

6.1. Kuantitatiboa

Maila anitzeko erregresio anizkoitzaren tekniken bidezko estatistika-azterketa, Ebaluazio Diagnostikoen 2009ko eta 2010ko edizioetan ikastetxeen batez besteko errendimendua oinarri hartuta, bakoitzaren balio erantsia zehazteko (ikastetxeak egindako ekarpena).

Helburua:

Balio erantsi handiko ikastetxeak identifikatu eta hautatzea

6.2. Kualitatiboa

Elkarrizketen, eztabaida-taldeen, behaketaren edo galdetegiaren bidez bilduko da informazioa esku hartzen duten eragileen artean:

- Eremuen ikuskaritza-zerbitzuak.
- Eremuetako Berritzeguneen aholkularitzak.
- Hautatutako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak.
- Ebaluazio Diagnostikoetan ebaluatutako kompetentziatako irakasleak.

Helburua:

Hautatutako ikastetxeen jardunbide egokiak identifikatzea

7. Oinarrizko kontzeptuak

7.1. Batez besteko puntuazio gordina

Ikastetxearen batez besteko puntuazioa Ebaluazio Diagnostikoetan ebaluatutako kompetentzia bakoitzean.

7.2. Esperotako puntuazioa

Hainbat aldagairen eragina dela bide, ikastetxean, kompetentzia bakoitzean espero daitekeen batez besteko puntuazioa da. Aldagai horiek dira: Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK), etorkin kopurua, ikasle euskaldunen tasa, ikasle errepikatzaileen tasa, etab.

7.3. Balio erantsia/hondarra. Batez besteko puntuazio egokitua.

Ikastetxe bakoitzarentzat batez besteko puntuazio egokitua lortzen da, aldagai jakin batzuen efektua kontrolatuta maila anitzeko erregresio anizkoitzaren prozedura estatistikoen bidez. Puntuazio hori ikastetxearen batez besteko lorpen akademikoaren mailaren adierazle bidezkoagoa da, testuinguru-aldagai horien eragina kendu baitzaio.

Ikastetxe bakoitzean lortutako puntuazioaren eta espero zitekeenaren arteko aldea edo hondarra ikastetxeko "balio erantsiaren" adierazle batzat har daiteke.

Ikerketaren proiektuaren lehen fasea

Proiektuaren lehen fasea



1. Kronograma

Proiektuaren hasieran lehen etaparen emaitzen txostena 2012ko abenduaren bukaeran Eusko Jaurlaritzaren orduko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izenekoari emateko eginbidea onartu zen. Eusko Jaurlaritzan izandako aldaketak direla eta, komenigarritzat jo zen txostena ematea 2013ko urtarrilaren bukaerara atzeratzea.

Edozein modutan ere, hitza bete ahal izateko, lana 2011ko ekainean eta uztailan hasi zen, ISEI-IVEIren eta UPV-EHUko ikertzaile taldearen elkarlana planifikatzeko zenbait bileratan. Ikertzaile taldea proiektuan parte hartzen duten hiru erakundeetako kideekin osatu ondoren, proiektuaren hasierako lanak egiten hasi zen 2011ko irailean.

Proiektuaren lehenengo fasea hiru etapatan banatu zen. Etapen denboralizazioa koadro honetan ikus daiteke:




2. Zereginak

Arestian aipatu bezala, proiektuaren garapenak bi metodologia zeharo ezberdin, baina elkarren osagarriak eskatu ditu. Alde batetik, ikuspuntu kuantitatibo batetik, Ebaluazio Diagnostikoko (ED) datuen analisi estatistikoa egin da balio erantsi handiko ikastetxeak identifikatzeko eta hautatzeko asmoz.

Ondoren, eta ikuspuntu kualitatibo batetik, ikastetxeen ikerketa egin da haietan gauzatzen diren jardunbide egokiak identifikatu ahal izateko.

Jarraian aurkeztu da ikerketaren proiektuaren lehen faseko etapetan zehar egindakoei buruzko laburpena.



Lehen etapa

(2011ko iraila-abendua)



Analisi kuantitatiboaren zereginak

1. Datuen analisi estatistikoa

Datuen analisi estatistikoari dagokionez, honako lan hauek egin dira:

- Datu fitxategiak prestatu, antolatu eta araztu.
- Atariko analisi estatistikoak.
- Eredu hierarkiko linealak diseinatu, egokitu eta balidatu.
- Hondarrak lortu.
- Ikastetxeak hautatzeko irizpideak finkatu.
- Ikastetxeak hautatu.

1.1. Erabilitako datuak

Egutegi arazoak direla eta, proiektuaren lehen fase horretan 2009 eta 2010eko EDetako datuak bakarrik erabili ahal izan dira.

Konpetentzia finkoak (ED09 eta ED10)

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Matematikarako konpetentzia

Txandakako konpetentziak

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia (ED09)
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia (ED10)

2. Ikastetxeen hautaketa

Behin fitxategiak araztu eta antolatu ondoren, proiektuaren lehen fase honetarako ikastetxe oso txikiak alde batera utzi ziren, hautatutako ikasturteetan ebaluatu beharreko irakasmilan 12 ikasle baino gutxiago zutenak alegia. Era berean, Ebaluazio Diagnostikoaren bi edizioetako batean bakarrik parte hartu zuten ikastetxeak ere alde batera utzi ziren.

Ondorioz, Lehen Hezkuntzako 409 ikastetxe eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 324 ikastetxe aztertu dira, guztira 33.500 ikasle 2009an eta ia 36.500 ikasle 2010ean.

Maila anitzeko ereduak egokitzeko eta balidatzeko, haietako bakoitzean ikastetxearen eraginik gabeko testuinguru-aldagaiak bakarrik eranstea erabaki zen. Ereduak egin eta balidatu ondoren, ikasle eta ikastetxe bakoitzarentzat ereduaren arabera esperotako puntuazioak kalkulatu dira. *Ikastetxe bakoitzean lortutako puntuazioaren eta espero zitekeenaren arteko aldea edo hondarra ikastetxeko "balio erantsiaren" adierazle batzat har daiteke.*

Puntuazio egokitu (diferentzial edo hondarrezko) horiei esker, ikastetxeen zerrenda berrordenatu ahal izan da konpetentzia eta irakasmila bakoitzerako. Hartara, zerrendako lehen tokian ez dago batez besteko puntuazio zuzenik altuena

lortu duen ikastetxea, testuinguru-aldagaien eragina kendu ondoren hondarrik handiena duen ikastetxea baizik, hots, balio erantsirik handiena duena.

Azkenean hautatu ziren ikastetxeek bi urteetan batez besteko hondar handia (80 zentiletik gorakoa) lortu zuten, edo oinarrizko hiru konpetenzietan, edo hiru horietako bitan eta lau konpetenzietako batez bestekoan.

Irizpide horren arabera azkenean 32 ikastetxe hautatu dira¹. Euskadiko ikastetxeen populazioa banatzen den antzeko moduan banaturik daude: Lehen Hezkuntzako 16 ikastetxe eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 16 ikastetxe; hezkuntza-sareari dagokionez, 16 ikastetxe publikoak dira eta 16, itunpekoak.

Aipatu beharrekoa da prozesu osoa ikastetxeen izenak jakin gabe gauzatu dela, datu fitxategietan ISEI-IVEIk proiekturako esleitutako zenbaki identifikagarri jakin bat bakarrik ageri baita.

Hautatutako ikastetxeak: 32

Etapa	
LH	DBH
16	16

Sarea	
Publikoa	Itunpekoa
16	16

3. Hautatutako ikastetxeen ezaugarriak

Hautatutako 32 ikastetxeen ezaugarriak askotarikoak direnez, euskal hezkuntza sistemaren aniztasuna islatzen dute.

Hezkuntza-sarearen aldetik (publikoa ala itunpekoa) eta etaparen aldetik (Lehen Hezkuntza ala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikastetxeak erdibanatuta daude.

Aniztasun handia aurkituko dugu. 32 ikastetxe horien artean, batez besteko maila sozio-ekonomiko eta kultural oso desberdinetakoak daude: maila altuko edo oso altuko ikastetxeak daude (8), erdi mailakoak (17) eta baita maila apalekoak edo oso apalekoak (7).

Era berean, ikasle etorkinen ehunekoa ere ezberdina da ikastetxe batetik bestera: horrelako ikaslerik gabeko ikastetxeak daude, eta beste batzuetan, berriz, ikasle etorkinak % 70 baino gehiago dira.

Kokaguneari dagokionez, ikastetxerik gehienak hirigune handietan edo ertainetan daude, batzuk nekazal guneeetan badaude ere.

Gipuzkoan ikastetxe kopurua estatistikoki egokituko litzaiokeena baino txikiagoa da; Araban joera alderantzizkoa da.

32 ikastetxeen multzoan hiru irakastereduak daude.

¹ Egia esan, 30 ikastetxe ezberdin dira, haietako bik Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten baitute, eta analisi estatistikoaren ikuspuntutik unitate berezitu bezala hartzen baitira.

Lehen etapa

(2011ko iraila-abendua)



1. Fase kualitatiboaren prestaketa²

Fase kualitatiboa prestatzeari dagokionez, honako lan hauek egin ziren:

- Ikertu beharreko esparruen eta aldagaien atariko definizioa.
- Aldagaiak hautatu eta kategorien eta azpikategorien hasierako eskema formulatu.
- Informazio iturri posibleak aztertu: familiak, irakasleak, ikasleak, ikuskaritza, zuzendaritza taldeak, aholkulariak ...
- Informazio iturriak hautatu.
- Informazioa biltzeko erabil daitezkeen teknikak aztertu: elkarrizketak, eztabaida taldeak, behaketa, galdera-sortak eta abar.
- Erabili beharreko teknikak finkatu eta tresnak diseinatu.

2. Hartutako erabakiak

• Aztertzeko eremuak

- Curriculumaren eta metodologiaren garapena
- Irakasleen prestakuntza
- Ikastetxeak berrikuntza proiektuetan parte hartzea
- Aniztasunaren trataera
- Irakasleen jarraipena eta ebaluazioa
- Baliabide materialak eta teknologikoak
- Zuzendaritza taldea, lidergoa
- Barneko eta kanpoko koordinazioa
- Eskolaz kanpoko jarduerak
- Ikastetxearen, jardueren ebaluazioa, EDaren funtzioa
- Ikastetxeko giroa, bizikidetzak
- Komunitate sentimendua, kapital soziala

• Informazio iturrien hautaketa

- Ikastetxeetako erreferentzia-ikuskariak
- Ikastetxeetako erreferentzia-aholkulariak (Berritzeguneak)
- Zuzendaritza taldeak

• Informazioa biltzeko erabili beharreko tresnen definizioa

- Gako-informatzaileei elkarrizketa erdi egituratuak egitea, gidoiak kolektibo bakoitzari egokiturik.

² Fase kualitatiboaren prestaketa, diseinua eta azterketari dagokionez, ikertzaile taldearen eguneroko lanaz gain, 2011ko abenduan lan-mintegi bat egin zen Los Angelesen (UCLA, Graduate School of Education) Valadez irakaslearen taldeko ikertzaileekin batera.

Bigarren etapa

(2012ko urtarrila-ekaina)



Analisi kualitatiboaren zereginak

1. Elkarrizketak egiteko protokoloa

Jarraian gako-informatzaileekin elkarrizketak egiteko protokoloa duzu:

- Informatzaileei aldez aurretik aurkezpen-gutun bat bidaltzea, ikerlanaren eta elkarrizketaren helburuak azaltzeko.
- Elkarrizketa ikertzaile taldeko bi pertsonak egitea.
- Kolektibo bakoitzarentzat berariazko gidioa prestatzea. I, II eta III. eranskinetan gidoi bakoitzaren ale bat aurki daiteke.
- Informatzaileek baimena eman ondoren, elkarrizketak grabatzea.

2. Elkarrizketak egitea

2012ko lehen sei hilekoan landa-lan kualitatiboa izan zen nagusi, lehen aipatutako hiru gako-informatzaileekin elkarrizketak egin baitziren honako hurrenkeran:

- Ikastetxeetako erreferentzia-ikuskariak.
- Ikastetxeetako erreferentzia-aholkulariak (Berritzeguneak).
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak.

Elkarrizketen prozesuari hasiera urtarrilean eman zitzaion eta maiatzean amaitu zen.

Elkarrizketei buruzko datuak

	Ikuskariak	Berritzeguneko aholkulariak	Zuzendaritza taldeak
Elkarrizketatutako pertsonak	25	26	30
Informatzaileak guztira	81*		
Elkarrizketak guztira	90*		

*Ikuskari batzuk eta Berritzeguneetako aholkulari batzuk zentro bat baino gehiagorentzat erreferente zirenez, elkarrizketa bana baino gehiago egin zaie. Horrela egin izanak ekarri du informatzaile guztien kopuruaren eta elkarrizketa guztien kopuruaren arteko aldea. Bestalde, hautatutako 30 ikastetxeetatik bitan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza daukatenez, estatistika aldetik bi unitate ezberdintzat jotzen da ikastetxe horietako bakoitza. Horregatik, 32 ikastetxe hautatu direla esaten da, nahiz eta benetan 30 izan, euren zuzendaritza-taldeekin.

Bigarren etapa (2012ko urtarrila-ekaina)



3. Hartutako erabakiak

Elkarrizketetan batutako informazio guztia sistematikoki aztertzeo prozesuari hasiera emateko, ekainaren erdialdean mintegi bat egin zen UCLA unibertsitatean. Mintegian Valadez irakasleak eta bere taldeak hartu zuten parte, eta UPV-EHUren partetik Intxausti eta Lizasoain irakasleek. Mintegiaren helburua elkarrizketetan bildutako informazioaren analisia egiteko estrategia diseinatzea eta adostea izan zen.

- **Informazioaren hautazko transkribapena**

Bertan hartutako lehen erabakia elkarrizketetako soinu-erregistro guztiak transkribatu beharrean, informazio garrantzitsuaren hautazko transkribapena egitea izan zen.

Analistak grabaketak entzuten ditu eta bere ustez informazio garrantzitsua duen pasarte bat identifikatzen duenean, hasierako eta bukaerako denbora idazten du, pasarte laburtzen du, eta hala behar denean aipamena hitzez hitz idazten du; azkenik, pasarte ikerlanaren kategorien arabera sailkatzen du.

- **Kategorien eskemaren elaboreazioa**

Hurrengo urratsa elkarrizketak aztertzeo erabili behar zen kategorien eskema finkatzea zen. Horretarako, uztailen ikertzaile taldeak beste lan-saio bat egin zuen hautazko transkribapenerako prozedura berraztertzeo eta kategorien eskema –batzuetan azpikategorien eskema– finkatzeko.



Bigarren etapa

(2012ko urtarrila-ekaina)



Analisi kualitatiboaren zereginak

Kategorien hasierako eskema

- 1 **Ikastetxearen pertzepzio orokorra** (informatzailearen ustez, zergatik lortzen dituen ikastetxeak emaitza on horiek).
- 2 **Proiektuak, planak eta prestakuntza:** berrikuntza-, (kanpoko, barneko, kateko) prestakuntza-, hobekuntza-, kalitate- eta hizkuntzen trataera-proiektu eta planak ez ezik, baita berrikuntza, hobekuntza eta abarrei buruzko jarrera ere bai.
- 3 **Metodologia, didaktika eta irakasmaterialak.** Baliabide materialen eta IKT teknologien erabilera (material propioak, testuliburuak, berariazko metodologiak...)
- 4 **Aniztasunaren trataera** (zehaztu metodoak, lanak, materialak, proiektuak, programak, egokitzapen mota, baliabideak lortzeko eta antolatzeko moduak ...)
 - a. Ikasleak antolatzeko eta taldekatzeko irizpideak
 - b. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak
 - c. Ikasle etorkinak (hizkuntza indartzeko programako irakaslea, harrera plana)
 - d. Ikasketa-errendimendu apaleko ikasleak eta ikasle errepikatzaileak
 - e. Eta abar.
- 5 **Ikasleen jarraipena, orientazioa eta tutoretza** (tutoretza plana, ikasleen banakako eta taldekako arretarako prozedura eta tresnak, irakasleak eta familia).
- 6 **Ikasleen ebaluazioa** (kontrol mota eta kopurua, hasierako ebaluazioa, gutxieneko maila, errekueraziorako mekanismoak, irizpideak, irizpideen ezagupena eta haien inguruko adostasuna, ebaluazioaren emaitzen erabilera, familiei eta ikasleei adieraztea, irakasmaita errepikatzeko irizpideak...)
- 7 **Denboraren kudeaketa** (irizpideak, eskolen arteko etenak, atsedenaldiak, bikoizketak, indartzeak eta laguntzak, zaintzak, tutoretzak, prestakuntzarako orduak, jantokiko ordutegia eta bazkalosteko atsedenaldia)
- 8 **Lidergoa eta zuzendaritza taldea** (lanak, estiloak, motak: banakoak, partekatuak, banatuak ...)
- 9 **Kudeaketa eta antolamendu ereduak, ikastetxea erakunde bezala** (parte hartzea, plantillaren egonkortasuna, irakasleei arreta, irakasleak hartzeko protokoloa, helburu argiak eta partekatuak, erantzukizunen banaketa, giza baliabideen kudeaketa ...)
- 10 **Koordinazioa:** kanpoko koordinazioa eta barneko koordinazioa (motak eta helburuak, jarduera komun antolamendua, curriculum, metodologia edo ebaluazioari buruzkoak).
- 11 **Ikastetxearekiko pertinentzia-sentimendua** (ikastetxearekiko harreman afektiboa).
- 12 **Irakasleen ebaluazioa, ikastetxearena, programena eta jarduerena; EDaren erabilera.**
- 13 **Giroa eta bizikidetzak.** (Giroa: ikastetxeko irakasleen arteko harremana, komunikazioa, ikasleen arteko harremana, ikasleen lan eta ahalegina sustatzen duen giroa, giro egokia bultzatzeko neurriak, ikastetxeko giroaren balorazio orokorra. Bizikidetzak: bizikidetzak plana, diziplina arazoak eta bideratzeko estrategiak. Gatazken prebentzioa eta konponbidea).
- 14 **Beste batzuk**
- 15 **Analistak ikastetxeari buruz duen balorazio eta pertzepzio orokorra**

Hirugarren etapa

(2012ko iraila-abendua)



1. Hautazko transkribapena

Behin analisirako kategorien eskema finkatu ondoren, hurrengo lana pasarte garrantzitsuen hautazko transkribapena egitea zen. Gero haietako bakoitza kategoria batean sartu behar zen, analistak edukia ikusi ondoren egoki zeritzon kategorian, alegia. Lan hari 2012ko irailean hasiera emateko entrebistak taldekideen artean banatu ziren, hautazko transkribapena egin zezaten.

90 elkarrizketen hautazko transkribapenaren prozesua urriaren hasieran bukatu zen, aurreikusirik zegoen bezala.

2. Kategorien hasierako eskema berrikusketa

Irailaren erdialdean lanaren jarraipenerako bilera bat egin zen, eta bertan hasierako kategorien edukiak aztertu eta egokitu ziren. Kategoria berri bat eranstea erabaki zen:

- **Familia, komunitatea eta kapital soziala** (familia eta komunitatearekiko harremanak, gizarte zerbitzuak, GKEak, parrokia, beste erakunde batzuk eta abar)

3. Azpikategorien eskemaren elaborazioa

Informatzaileei egindako 90 elkarrizketen transkribapenak bildu ondoren, informazioa kategorien arabera berrantolatu zen. Ikertzaile taldeko kideek (binaka, informazioa kontrastatu eta triangelukatu ahal izateko) elkarrizketa guztietako pasarte garrantzitsuak aztertu zituzten, eta bigarren mailako azpi-kategorien hasierako eskema bat finkatu zen.

4. Informazioaren azken analisia³

Azpi-kategorien eskemak urriaren erdialdean izandako mintegi batean berraztertu eta onartu ziren, eta informazioaren azken analisirako prozedura finkatu zen.

Lehenengo eta behin, informatzaileen diskurtsoaren pasarte garrantzitsuak sintetizatu eta aztertu ondoren, analisi-unitatea ikastetxea zen. Era horretara, azpikategoria eta ikastetxe bakoitzarentzat hiru balio posible markatu ziren:

- 0, ikastetxea azpikategoria horretan nabarmentzen ez zenean.
- 1, ikastetxean jardunbide egoki hori praktikatzan zenean.
- 2, ikastetxea azpikategoria horretan bikain nabarmentzen zenean.

Informazioa matrize batean jaso zen: lerroak 32 ikastetxeak dira, eta zutabeetan azpikategoriak (jardunbide egokiak), ikastetxeen ezaugarri/aldagaiak (sarea, etapa, irakasteredua, batez besteko ISEK indizea, ikasle etorkinen tasa, ikasle errepikatzaileen tasa eta abar).

Azken emaitza ikastetxeetan praktikatzan diren jardunbide egokiaren mapa nolabait adierazten duen matrize bat da.

Ondorengo irudian matrizearen atal bat dago azalduta:

³ Metodologia UCLA unibertsitatean azaroaren erdialdean egindako beste mintegi batean berraztertu eta balidatu zen. Mintegian Valadez irakasleak parte hartu zuen, eta UPV-EHUren partetik Etxeberria eta Lizasoain irakasleek.

Hirugarren etapa (2012ko iraila-abendua)



Matrizearen atal bat

	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
	tasaesk10	tasarepetidores10	modelo10	tamaño10	ISEC10DEC	Tipo	Red	Etapa	Centro	2.1	2.2	2.3	2.4	2.5	3.1	3.2	3.3
1																	
2	0,69	0,14	3,00	42	9	1	1	2	25718	0	1		0	1		2	
3	0,00	0,20	2,00	45	7	3	1	2	26180	1		0		0			1
4	0,18	0,06	3,00	17	3	1	0	1	26510		1				1		0
5	0,13	0,06	2,27	97	9	3	1	1	26576			1	0	0	1	0	1
6	0,80	0,10	3,00	30	5	1	0	1	27082	2	2	2	2	2	2	2	0
7	0,06	0,29	1,00	17	1	1	0	1	28798	1	0	1		1	2	1	0
8	0,68	0,21	3,00	19	3	1	0	1	28886	1	1	2	1	1	2	0	0
9	0,00	0,66	1,26	62	2	1	0	2	28952	0	0	0	0	0			1
10	0,03	0,34	2,45	29	3	1	0	2	29612	1	1	0	0	1			
11	0,07	0,33	2,50	88	3	1	0	2	29986	2	1	2	1	2	2	1	1
12	0,00	0,19	1,00	31	2	6	1	12	30602	2	2	2		2	1	1	
13	0,10	0,10	2,00	20	1	6	1	1	30976	1	1	2	0	1	2	1	
14	0,55	0,63	2,00	65	1	1	0	2	31746	1	1	0	1	1			0
15	0,26	0,20	3,00	88	9		0	2	31768			2					0
16	0,81	0,01	3,00	79	8		1	1	32252	0	1	0	1	1	1	0	0
17	0,17	0,21	3,00	131	7	1	0	2	32846	0	0	0		1	2		1
18	0,00	0,38	1,00	48	2	3	1	2	33462	1	1	0	0	1		1	1
19	0,68	0,02	3,00	59	5	4	0	1	33924	1	0	0			1		1
20	0,04	0,15	2,00	26	3	2	1	12	35068	2	2	2		2	2	2	
21	0,00	0,15	1,52	60	7	3	1	2	35662	1	1	1		1	1	1	1
22	0,06	0,02	1,75	102	10	6	1	1	35926	2	2	2		2	2	2	
23	0,74	0,03	2,66	58	9	5	1	1	36124	2	2	2		2			
24	0,04	0,04	2,00	24	2		1	1	37004	1			1	1	2	1	2
25	0,13	0,09	3,00	68	7		0	1	37092				1	1	1	2	0
26	0,05	0,24	1,66	74	2	1	0	1	37202	1	1	1	1	1	2		1
27	0,30	0,05	3,00	56	9	5	1	2	37532	2	2	1	1	2	2	0	1

5. Egindako lanaren azken berrikusketa

Abenduaren hasieran ikertzaile-taldeak bilera bat egin zuen burututako lanaren azken berrikusketa⁴ egiteko eta azken eginkizuna finkatzeko: ikertzaile-taldeko kideek, binaka berriro, kategoria bakoitzaren azken analisia egitea. Horretarako aztertu zuten zein jardunbide egoki praktikatzaren diren eta baita jardunbide egoki horiek praktikatzaren direneko ikastetxeek zer nolako ezaugarriak dituzten ere.

⁴ Kategoria eta azpikategorien eskema ostera ere berrikusi zen behin betikoa zehazteko. Eskema hori dokumentu honen "Emaitzak: kategoria bakoitzean antzemandako jardunbide egokiak" atalean duzu (23-28 or.).

6. Txostenak idaztea

Abenduaren erdialdetik urtarrilaren erdialdera bitartean kategoria bakoitzari dagokion txostena idatzi zen, eta lehen etapa horren bukaerako bileran, 2013ko urtarrilaren 23an, azken ondorioen eta txosten honen azken berrazterketa burutu zen.

Emaitzak eta ondorioak

Emaitzak

Kategoria bakoitzean antzemandako jardunbide egokiak



1. Proiektuak, planak eta prestakuntza

Kategoria honetan ikastetxeetan hobekuntza-planei loturik gauzatzen diren hezkuntza prestakuntza eta berrikuntza proiektuak sartzen dira.

Prestakuntza-jardueretan eta -ikastaroetan parte hartze aktiboa hezkuntza-curriculumaren jardueratzat hartzen dute irakasleek; ikastetxeen % 75ek⁵ baino gehiagok etengabeko prestakuntzaren eta berrikuntzaren aldeko jarrera nabarmena azaldu du: berariazko prestakuntza eskatu eta deialdian parte hartu dute.

Bigarren jardunbide egokia profesionalak prestakuntzarekiko duten eginbidea da, berrikuntza-ikastaro edo -proiektu bat proposatzen den unetik bukaerara arte; zuzendaritza taldeak eta irakasleak partaide izan diren proiektuak bukatzeari buruz ikastetxe gehienetan (21) balorazio positiboak izan dira.

Azkenik, jardunbide egokitzat har daiteke proiektu berrien eskaria, prestakuntzaren jarraitutasuna eta irmotasuna. Dirudienez, zuzendaritza taldeek indartzen eta errazten dute ikastetxeetan planak eta proiektuak garatzea.

2. Metodologiak eta irakasmaterialak.

Eraginkortasun maila altuko ikastetxeek askotariko metodologiak eta baliabideak erabiltzen dituzte.

Iturri ezberdinetatik jasotako informazioan oinarriturik, aztertutako ikastetxeen % 67k jarduera berritzaileak gauzatzen dituzte hizkuntzen irakaskuntzan.

Gutxi gorabehera ikastetxeen erdiek arreta berezia ematen diote matematikarako edota zientziarako kompetentzia lantzeari, edo beren material propioekin edota testuinguruan kokaturik. Aipatu beharrekoa da, kategoria honetan nabarmentzen diren ikastetxeen erdiak gutxi gorabehera hizkuntzei dagokien kategorian ere nabarmentzen direla.

Aztertutako 20 ikastetxe nabarmentzen dira kategoria honetan berariazko metodologia bat erabiltzeagatik eta irakasmaterial propioak sortzeagatik.

Hala ere, zenbait ikastetxetan (% 33) aitortzen dute ohiko metodologia, klasikoa eta ez berritzailea, erabiltzen dutela eta baliabiderik erabiliena testuliburua dela.

Beste alde batetik, eta aurreko gaiet loturik, ikastetxeen erdiek baino gehiagok garrantzia handia ematen diote teknologia berriak erabiltzeari, eta aitortzen dute baliabide didaktiko gisa eta barne eta kanpoko komunikaziorako tresna gisa sarritan erabiltzen dituztela.

Zenbait ikastetxetan (6), garrantzi nabarmena ematen diote balioak lantzeari zehar lerro gisa. Gehienak itunpeko sarekoak dira.

3. Aniztasunaren erantzuna

Kategoria honen barruan ikastetxeetan ikasleak taldekatzeko erabiltzen diren irizpideak sartu dira eta, baita ere, askotariko ikasleei ematen zaien hezkuntza-

⁵ Hemendik aurrera, aurkezten diren ehunekoak 30 ikastetxetako datuetatik kalkulatu dira.

erantzuna (hala nola ikasle etorkinei, HPBak dituztenei, errendimendu apaleko ikasleei, ikasle errepikatzaileei eta abarrei).

Ikerketan eraginkortzat hartu diren ikastetxeak nabarmendu egin dira, ehuneko handiagoan edo apalxeagoan, aniztasunaren trataeraren zenbait arlotan. 25 ikastetxe (% 83,3) errendimendu apaleko ikasleei edota errepikatzaileei ematen dieten hezkuntza-erantzunagatik nabarmendu dira; 18 ikastetxe (% 60), ikasleak taldekatzeko erabiltzen dituzten irizpideengatik; 17 ikastetxe (% 56,67), HPBko ikasleei ematen dieten hezkuntza-erantzunagatik; eta 12 ikastetxe (% 40), ikasle etorkinei ematen dieten hezkuntza-erantzunagatik.

Dirudenez, ikastetxe horiek baliabideak egoki kudeatzen dituzte, zailtasunak dituzten ikasleekin arduratzen dira eta ikasgela barruan, ikasgelatik kanpo edo biotan indartze- eta laguntza-neurrien aldeko jarrera izaten dute. Oro har, badirudi inplikazio handia dagoela irakasleen artean aniztasunari ematen zaion erantzunean. Kasu batzuetan bikoizketak edo taldekatze malguak antolatzen dira ikasle bakoitzari hezkuntza-arreta egokiagoa eskaini ahal izateko. Ikastetxeek, zeinek bere premien arabera, aniztasunaren trataerari lotutako berariazko baliabideak eta programak izaten dituzte: HIPI, IOLP, HBSP, CD, kulturartekotasuna sustatzeko pertsonala, ikasgela egonkorrak, ZIG, HLE⁶... Ikastetxe gehienek oso inportantetzat jotzen dute ikasleen zailtasunak lehenbailehen antzematea eta zailtasunoi ahalik eta arinen ekitea eta esku hartzea. Bestalde, ikasle horien etengabeko jarraipena egiten dute. Azkenik, badirudi aniztasunari ematen zaion erantzunean parte hartzen duten askotariko profesionalen artean koordinazio ona izaten dela.

⁶ HIPI: Hizkuntza Indartzeko Programako Irakaslea
 IOLP: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programa
 HBSP: Hezkuntza Berariazko Sendotzeko Programa
 CD: Curriculumaren Diversifikazioa
 ZIG: Zereginen Ikaskuntza Gela
 HLE: Hezkuntza Laguntzarako Espezialista

Ikasle etorkinei ematen zaien erantzunaren kasuan, nabarmendu diren ikastetxe asko ikasleentzako eta familientzako harrera-planak eta protokoloak dituzte; orobat, kultura-artekotasunaren garrantziaz jabeturik, landu egiten dute. Irakasmila errepikatzeari dagokionez, nabarmendu diren ikastetxeek erabakia hartzeko irizpideak finkaturik dauzkate, eta behar diren konponbideak lehenbailehen abian jartzearen aldekoak dira.

Bukatzeko, taldeak eratzeari dagokionez, ikastetxe batzuk nabarmendu dira ikastalde homogeneoak edo heterogeneoak lortzeko irizpideak finkaturik dauzkatelako. Ikastetxe batzuek ikastaldeak mantendu egiten dituzte ikasturte guztietan zehar, eta beste batzuek, berriz, ikastalde ezberdinetako ikasleak nahastu egiten dituzte eskolatzeprosesuaren une jakinetan edo jarduera jakin batzuk egiteko.

4. Ikasleen jarraipena, banan-banako arreta, orientazioa eta tutoretza

Kategoria honetan honako arloak bildu dira: orientazio lanak (irakasle orientatzaile eta aholkulariak), bere lidergoa eta funtzionamendua ikastetxean, eta, baita ere, tutoretza plana eta ikasleen jarraipena eta banan-banako arreta.

Ikastetxe eraginkor gehienak, 26 ikastetxe (% 87), ikasleen jarraipenagatik eta banan-banako arretagatik nabarmendu dira. Gainera, 26 ikastetxe horietako 14 modu bikainean nabarmendu dira.

Begien bistakoa da ikastetxe horiek ikasleen jarraipen zehatza egiten dutela, "kontrol" hitzarekin ere deskribatu litekeena. Ikastetxe horien beste ezaugarrietako bat ikasleei buruzko informazio-bilketa oso sistematizatu izatea da, eta horrek arazoak goiz antzemateko eta konponbidea goiz aurkitzeko aukera eskaintzen du. Familielikiko harreman estua eta sistematikoa izatea jarraipenaren ataltzat hartzen dute. Bestalde, ikasleei banan-banako arreta eskaintzen saiatzen

dira, askotariko erritmoekin eta askotariko metodologia eta baliabideak erabiliz.

Jarraipenari loturik, aztertutako 23 ikastetxe (% 77) tutoretza lanetan eta beren tutoretza planean nabarmendu dira, horietako 10 modu bikainean.

Ikastetxe horiek tutoretza lana positibotzat hartzen dutela ikusi da, eta horretan denbora luzea ematen dutela. Tutoretza plana irakasle aholkulari edo orientatzailearekin elkarlan estuan finkatzen da. Familiarekiko koordinazioa ere estua da. Elkarrizketetan ikasgela barruko tutoretzak eta banan-banakoak aipatu dira, baita metodologia ezberdinak ere (tutoretza bikoitzak, ikasgelan hiru irakaslek batera jardutea ...).

Beste alde batetik, ikastetxeen % 47 nabarmendu da irakasle aholkulariei eta orientatzaileei dagozkien lanetan. Irakasle horiek oso pisu handia dute ikastetxeen dinamikan, gako-pertsonak baitira tutoretza eta bizikidetza planetan, ikasleen jarraipenean, arazoak dituzten ikasleak antzematean, eta indartzea duten ikasleekin eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiterakoan.

5. Irakasleen ebaluazioa

Kategoria honetan irakasleek eta ikastetxeek ikasleei egiten dieten ebaluazioaren inguruko alderdi guztiak bildu dira.

Ikastetxe horietako askok modu ezberdinetan adierazi dute ebaluazio prozesuak oso garrantzitsuak direla ikasketetan eta ikaste-prozesuan. Zenbait kasutan ikasleei egiten zaien ebaluazioaren maiztasuna eta intentsitatea aipatu dira, baina beti ikasleen errendimenduaren jarraipenaren eta kontrolaren ikuspuntutik.

Jardunbide egokirik arruntena ebaluazio irizpideei dagokiena da. Hiru alderdi nabarmendu dira: gutxieneko mailak oso argi finkaturik egotea, gutxieneko mailak klaustroak edo irakasle talde batek modu kolegiatuan finkatuak izatea, eta gutxieneko

maila horiek pertsona interesatu guztiei (famiariak, ikasleak...) kanal ezberdinetatik (iragarki-taulak, gutunak, web...) jakinaraztea.

Horretaz gain, kategoria honetan ikasleen kanpoko ebaluazioak egiten dituzten zenbait ikastetxe daude edo irakasmailen edo etapen hasieran xede diagnostikoko hasierako ebaluazioak egiten dituztenak.

6. Denboraren kudeaketa

Kategoria honetan ikastetxe eraginkorrek denbora nola banatzen duten aztertu da.

Ikastetxe gutxik eskaini du horri buruzko informazioa. Informazio horretatik ondorioztatzen da, elkarrizketatutako pertsonen iritziz, ikastetxe eraginkorretan denboraren kudeaketaren gakoa aprobetxamendu ona izaten dela. Gainera, dirudienez, puntualtasuna eta ordutegia betetzea asko zaintzen diren alderdiak dira. Ikastetxe horietako batzuetan antzeman da eskolen arteko denbora alderdi akademikoak, kulturalak eta kirolak modu paralelo eta ludikoan lantzeko erabiltzen dela, eta horrek eragina izan lezake ikasleen errendimenduan. Bukatzeko, irakasleek normalean beste zeregin batzuetan ematen duten denbora ikastetxe horietako zenbaitetan eskolak ematen edo modu batean edo bestean ikasleekin zuzen esku-hartzen ematen dutela ikusi dugu.

7. Lidergoa eta zuzendaritza taldea

Lidergoari eta zuzendaritza taldeari dagokion kategoriak hainbat alderdi biltzen ditu, besteak beste, ikastetxeko zuzendaritza taldearen eta irakasleen egonkortasuna; zuzendaritza taldeak ikastetxeko gainontzeko agenteekiko dituen sentipenak, giroa, filosofia eta itxaropenak; zuzendaritza taldearen izendapena, proiektua, betebeharrak eta lanen banaketa; zuzendaritza taldearen estiloak, eta prestakuntzaz, berrikuntzaz eta hobekuntzaz duen lidergoa.

Ikastetxeko proiektua eta kudeaketarako gaitasun handia dituen zuzendaritza taldearen egonkortasuna jardunbide egokitzat jo da ikastetxeen % 70ean, eta horien artean % 40 (12 ikastetxe) asko nabarmendu dira. Jardunbide egokitzat jotzen da, baita ere, ikastetxeko proiektuaren funtzionamenduaren alde lan egiten duten irakasle egonkorren nukleoa, estilo pedagogikoa definitzen duena, ikastetxeko pertenezia-sentimendu positiboa duena eta irakasle berriak heltzen direnean jarraitasuna eta kohesioa bermatzen duena.

Sentipenak, giroa, filosofia eta itxaropen positiboak jardunbide egokitzat hartzen dira ikastetxeen % 87an (26 ikastetxe) eta horien arteko 17 ikastetxe asko nabarmendu dira.

Aipatu beharrekoa da, alde batetik, zuzendaritza taldeak irakasleen lana aitortzea eta ontzat ematea motibagarria dela, eta baita ere zuzendaritza taldearen lidergoaren eragina ikastetxean giro egokia sortzearen alde. Beste alde batetik, zuzendaritza taldeak, ikasleen garapen integralari begira, hezkuntzarekiko konpromisoa du. Zuzendaritza taldeak, izendapena borondatezkoa izan zein ez izan, nabarmendu dira xede argiak izateagatik, ikastetxea ezagutzeagatik, behar beste denbora emateagatik, ikastetxeko arazoekiko ardura hartzeagatik, lanerako motibazio eta eginbidea edukitzeagatik eta taldean lan egiten jakiteagatik. Zuzendaritza taldeak ikasleen garapen akademikoan eta integralean itxaropen handiak izatea ere nabaria da.

Ikastetxeen % 67k (20 ikastetxe) zuzendaritza taldearen lidergoa aitortzen du. Lidergo mota askotarikoa izan daiteke (demokratikoa, hierarkikoa edo operatiboa).

Zuzendaritza taldeak betebeharrak garrantzitsua du irakasleak ikastetxean inplikatzeko, talde lanak egiteko, ardurak delegatzeko eta konfiantza eta komunikazio giro egokia sortzeko.

Ikastetxeen % 70ean (21 ikastetxe) antzeman da zuzendaritza taldeak berrikuntzan eta prestakuntzarako eginbidean duen lidergoa.

8. Kudeaketa eta antolamendu ereduak

Ikastetxeen % 63,3 (19 ikastetxe) antolamendu (hierarkiko edo demokratiko) ereduaz nabarmendu dira. Antolamendu demokratikoa nagusi da.

Arduren banaketa-maila altua izaten da, irakasleen artean betebeharraren banaketa argia izaten da, eta zuzendaritza taldeak erabakiak hartzerakoan irakasleen iritzia aintzat hartzen ditu.

Aipatu behar da ikastetxeen % 59,9ko kudeaketa ereduak antolamenduari sistematizazio handia ematen diotela eta funtzionamendua errazten dutela. Haien arteko batzuek kalitatearen kudeaketa-sistemaren bat erabiltzen dute, bereziki itunpeko ikastetxeetan.

Ikastetxe eraginkorretako beste jardunbide egoki bat irakasleei ematen zaien arreta, babes eta laguntza da. Ikastetxeen % 66,6k adierazi du arlo horretako jardunbideren bat ezarri dutela.

9. Koordinazioa

Koordinazio egokia, barnekoa zein kanpoko, oso jardunbide egoki erabilia da Euskadiko ikastetxe eraginkorretan, ikastetxeen % 86,6an (26 ikastetxe) erabiltzen baita.

Barneko koordinazioak ikastetxearen esparru asko barne hartzen ditu, besteak beste zikloko eta etapako bilerak, etapen artekoak, tutoreen eta orientatzaileen arteko bilerak, zuzendaritza taldeko kideen arteko bilerak, batzordeen bilerak (pedagogia batzordea, proiektu batzordea...) eta, ikastetxean kalitate-sistema bat aplikatzen denean, prozesu-talde bilerak.

Kanpoko koordinazioari dagokionez, ikastetxeek, beste ikastetxe eta kanpoko hezkuntza, gizarte eta osasun-erakunde batzuekiko koordinazioari garrantzi handia ematen diote, laguntzak eta sinergiak nahi baitituzte, kalitate handiko hezkuntza-zerbitzua eskaintzeko.

Koordinazioaren aurretiazko planifikazioa ikastetxeen % 63,3an antzeman da. Planifikazioari esker, irakasleek koordinazio bileren egutegia eta helburuak aldeztatik jakiten dituzte.

Bukatzeko, ikastetxeen % 27an tresna telematikoak erabiltzen dira koordinazio bileren kudeaketa errazteko eta bileretako aktak aiseago kontsultatu ahal izateko.

10. Inplikazioa ikastetxean eta pertenezia-sentimendua

Kategoria honetan ikasleek ikastetxearekiko duten pertenezia-sentimendua sartu da, lanean duten jarrera, inplikazio, eginbide eta ardura mailarekin batera.

Ikastetxe eraginkor asko, 23 ikastetxe (% 77), lanarekiko jarrera, inplikazio, eginbide eta ardura mailagatik nabarmendu dira, eta haien arteko 11 ikastetxe modu bikainean nabarmendu dira.

Bestalde, aztertutako 19 ikastetxe (% 63,3) nabarmendu dira irakasleek ikastetxearekiko pertenezia-sentimendu sendoa adierazten dutelako. Pertenezia-sentimendua era ezberdinetan adierazi da: irakasleak bat datoz ikastetxearen nortasun eta ideologiarekin, ikastetxea berea den zerbait bezala edo "familia bat" bezala hartzen du, ikastetxeko proiektuarekin bat datoz eta proiektuan sinesten dute. 19 ikastetxe horietako 9 asko nabarmendu dira.

11. Irakasleen, ikastetxearen, programen eta jardueren ebaluazioa eta Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera

Kategoria honetan ebaluazioaren alderdi batzuk aztertu dira, hala nola irakasleen ebaluazioa, garatzen diren programen ebaluazioa edo are ikastetxearen beraren ebaluazioa ere. Horrekin batera, Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera ere aztertu da eta baita harekiko pertzepzioa eta balorazioa ere.

Ikuspegi orokor batetik, aztertu diren 30 ikastetxeetako 21 (% 70) nabarmendu dira kategoria honi dagokion alderdi batean gutxienez, kategoriaren garrantziaren erakusgarri.

30 ikastetxeetako 12tan (% 40) ikastetxearen eta irakasleen ebaluazioari lotutako jarduerak antzeman dira, eta bereziki ikastetxean garatzen diren jardueren, programen eta proiektuen ebaluazioari lotutakoak. Eta kasu guzti guztietan ebaluazioaren kultura hori prozesuak eta emaitzak hobetzerantz bideratuta dago argi eta garbi.

30 ikastetxeetatik 21etan Ebaluazio Diagnostikoa (ED) zelan baloratzen duten eta emaitzak zelan erabiltzen dituzten aipatu dute. Ikastetxe horietako gehienek oso positibotzat jotzen dute ED ebaluazioa, batez ere hobekuntzarako aukera bezala. Ebaluazioko emaitzak gehienbat hauek egiteko erabiltzen dira: hobekuntza-plan fokalizatuen garapena, banako arreta gehitzea, ikaskuntzak ebaluatzen prozeduren eta tresnen hobekuntza, eta batez ere konpetentzietan oinarritutako lana, koordinazioa sendotzea eta irakasleen talde-lana (irakasgaika, irakasmilaka, sailka...).

12. Giroa eta bizikidetzatza

Giroaren eta bizikidetzaren aldagaiari dagokionez, elkarrizketetan lortutako datuen arabera esan daiteke ikastetxe gehienek positibotzat hartzen dutela diseinatu duten edo oraindik diseinatzen ari diren bizikidetzatza-proiektua, nahiz eta proiektua gauzatzeko moduen artean eta aurrera eramateko moduen artean ere aldeak ikusten diren.

Giroaren isla positiboa da ikastetxe guztietan. Gainera, ikastetxe horietako askotan gai horrekiko jarrera proaktiboa antzematen da: irakasleen prestakuntza, giroa hobetzera bideratutako curriculum-ekimenak, une jakinetan esku hartzea...

Jarduketarako protokoloak eraginkorrak eta argiak direla egiaztatzen da. Diziplina eta errepresio neurriak alde batera utzirik, gaztekei irtenbidea emateko joera nagusia desadostasunak ikasteko aukera bezala hartzean oinarritzen da.

13. Irudia, instalazioak eta baliabideak

Hezkuntzako profesionalek elkarrizketetan adierazi dutenaren arabera, irudiari, instalazioei eta baliabideei dagokien alderdiak, oro har, ez dira garrantzitsuak, 30 ikastetxeetako 3k bakarrik hartzen baitituzte garrantzitsutzat.

Hautatutako ikastetxeen artean ez dago irudi txarreko ikastetxerik. Irudi onari buruzko iritziak adierazi direnean, ingurunearekiko lotura, ikastetxearen antolamendua, egiten den gizarte-lana, irudiaren erakargarritasuna eta antzeko alderdiak aipatu izan dira.

Instalazioei eta baliabideei dagokionez, alderdi arkitektonikoei eta ekipamenduari ez zaie garrantzi handirik ematen, salbu eta eskolaz kanpoko jardueren eta kirolei, irudi

atsegina izateari edo hezkuntza arloari loturik.

14. Familia, komunitatea eta kapital soziala

Kategoria honetan ikastetxeek ikasleen familiekin eta komunitatearekin duten harremanari lotutako alderdiak sartu dira.

Bildutako informazioan alde batetik familiek ikastetxeari buruz dituzten iritziak azaldu dira, baina batez ere inplikazio mailari dagozkion alderdiak adierazi dira, hau da, ikasleen familiak zenbateraino inplikatzan diren.

Aipatu beharrekoa da ikastetxe horietako gehienetan familien presentzia handi samarra dela. Hainbat kasutan ikusi da inplikazioak helburu jakin bat duela. Bi multzotan definitu dugu: lehena, familiek ikastetxe barruan gauzatzen duten jarduera pedagogikoari dagokio, eta bigarrena, familiek ikastetxe barruan jasotzen duten prestakuntzari dagokiona.

Ikastetxeak inguruko komunitatearen erakundeekin dituen harremanei dagokionez, harreman horiek dituzten helburuen arabera sailka daitezke. Garrantzitsuenak hiru hauek dira: baliabideak lortzea, hezkuntza-jarduerak (kirolak, kulturalak...) antolatzea, eta egoera ahuleko familia jakin batzuentzako oinarritzko laguntza lortzea. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da ezaugarri hori ez dela normalean eraginkortasunarekin identifikatzen, ikastetxe guztietan ez baita modu nabarian adierazi. Agian lotura sendoagoa izango luke ikastetxeek duen baliabide kopuruarekin.

Ondorioak



Proiektuaren lehen faseko aurkikuntzen bukaerako laburpen gisa, Euskadiko eraginkortasun handiko ikastetxeetan – hasieran emandako definizioaren arabera – garatzen diren **jardunbide egokien katalogoaren** lehen saio-bertsioztat har daitekeena aurkeztu da jarraian.

Jardunbide egokien zerrendari dagokionez, kontuan izan behar da lehenengo eta behin zehaztaper hauek:

- **Ikastetxe gehienetan presentzia.** Jardunbide egokiak ez dira gauzatzen aztertutako ikastetxe guztietan, baina bai gehiengo adierazgarri batean, kasurik gehienetan % 60tik % 75era bitartean, aztertutako kategoria eta azpikategorien arabera.
- **Behin-behinekotasuna.** Lehenago azaldu den bezala, katalogoa behin-behinekotzat hartu behar da, ikerketa proiektuaren ondorengo faseetan luzatzea aurreikusita baitago, beste Ebaluazio Diagnostiko batzuen emaitzak ere erantsirik (EDII, eta abar).
- **Zeharkako izaera.** Jardunbide egokiak eraginkortasun handiko ikastetxe gehienetan gauzatzen dira, ikastetxe mota, ikastetxe taldea edo ikastetxearen ezaugarriak edozein izanik ere (sarea, eredu, etapa, ISEK, ikasle etorkinen ehunekoa, eta abar). Gure iritziz, hori bada izatez, nolabaiteko garrantzia duen lehen aurkikuntza, **zeharkako** izaera horri esker ezaugarrien transferigarritasuna handitu egin daitekeelako.



Jardunbide egokien zerrenda



Ikasleak (ikaste-irakaste prozesua)

- Ikasleen lanaren jarraipen eta kontrol oso estuak egitea, bete beharreko lanak argi finkaturik eta planifikaturik.
- Jarraipena tutoretzatik egiten da, familiarekin harreman estuan eta tutoretza planaren bitartez. Familiari erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eskatzen zaio eta ikasleari buruzko informazioa ematen zaio.
- Aniztasunari erantzun egokia eta ondo antolatua eskaintzen zaio (HPBko ikasleak, ikasle etorkinak, errendimendu apalekoak...) ikastetxearen berariazko ezaugarrien arabera eta barne baliabideak egoki erabiliz: errendimendu apaleko ikasleentzako indartze eta arreta espezifikoko programak (IOLP programa, adibidez), zenbait ikastaldetan bi irakaslek batera jardutea eta abar.
- Ikasleen zailtasunak goiz antzematea eta zailtasunak gainditzeko arin esku hartzea.
- Ikasleen ebaluazioari garrantzi berezia ematea, prestakuntzako ebaluazioak sarritan eginez eta irizpideen eta gutxieneko mailen definizio argi, publiko eta kolegiatuarekin.
- Emaitza onak ez daude metodologia jakinei lotu loturik. Ikastetxe batzuetan ohiko metodologiak erabiltzen dira (testuliburua, adibidez), eta beste batzuetan berriz metodologia berritzaileagoak erabiltzen dira (askotariko metodoak, baliabideak eta ikasgela-antolakerak).

Irakasleak

- Irakasleen ardura maila altua, ikastetxearekiko eta egiten duten lan hezigarriarekiko (ez bakarrik irakaslan) inplikaziotik sortzen dena.
- Zuzendaritza taldeek antolatutako eta sustatutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntza jardueretan eginbidea eta parte hartze aktiboa (ikasten duten ikastetxeek)
- Zenbait kasutan, inplikazio handi horrez gain, kalitate programa edo proiektuetan parte hartzen dute.
- Ikastetxeko irakasleei arreta eta trataera egokia ematea, bai hasierako harreran bai beren eguneroko lanetan.
- Inplikazio maila altua eta zenbait kasutan irakasle aholkularien eta orientatzaileen lidergoa ikasleen jarraipenean eta tutoretza planean.

Jardunbide egokien zerrenda



Ikastetxea (antolamendua, kudeaketa eta lidergoa)

- Arazo handirik gabeko eskola-giroa, irakaslana errazten duena (edo oztopatzen ez duena). Kasu batzuetan normalizat jotzen dute, eta beste kasu batzuetan ontzat edo oso ontzat jotzen dute. Azken kasu horietako batzuetan ikastetxeek esperientzia eta prestakuntza izan dute bizikidetzaren arloan eta gatazken konponbideen arloan.
- Ikastetxeek ikusmolde eta filosofia propioa dute, argi definitua eta partekatua. Zuzendaritza taldea eta klaustroa bat datoz ikusmolde horretan, eta horren ondorioz helburuak eta helburuak lortzeko baliabideak argi finkaturik daude.
- Zuzendaritza taldea hautatua edo izendatua izanda ere, ezaugarri komuna da zuzendaritzak lidergo argia erabiltzea. Lidergoa askotariko era eta estilokoa izan daiteke, baina nagusia talde-lana dela ikusten da.
- Sistematizazio eta planifikazio maila altua ikastetxearen kudeaketan eta barruko eta kanpoko koordinazioan.
- Denboraren kudeaketa egokia, bai ikasgelan ikaste-irakaste prozesuan, bai ikastetxeko giza baliabideen antolamenduan.
- Ikastetxeak garatzen dituen proiektuen, programen eta jardueren ebaluazioa. EDaren balorazio positiboa antzeman da eta baita ere ebaluazio horren prestakuntzazko erabilera.
- Zuzendaritza taldearen itzaropen handiak ikasleekiko eta irakasleekiko.

Ikerketa aurrera doa.....



2013. urtea: proiektuaren bigarren fasea

2014. urtea: proiektuaren hirugarren fasea